

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/11/19 | 333

Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz Tolosan

Helena Orcoyen

Mikel eta Maite Gurrutxaga

Txapela buruan, eta ibili sarean!

Carlos Peña, mundua igerian

Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Tolosako
perla beltza



galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxepiá, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira


Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia Juankar Arregi
Idazkaria: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: 55-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



**Erreportaia:
Tolosako perla beltza**

Tolosaldeko zenbat eta zenbat etxe eta baserrietan Tolosako Babarrun ale more ilun, ia beltzak direnak, obalo itxuradunak, azal leunekoak arituko diren aukeratzen, banatzen? Zenbat etxetara helduko diren, urtero gisa, urte garai honetan babarrun eskaerak? Eta zenbat eta zenbat koadrilatan hasiak izango diren babarrun janak antolatzen?

8-11. orrialdeak

Heriotzak, tortura, atxiloketak... Saharako Agdaim izikeko kanpalekutik aurrena eta Aaiun hiriburutik ondoren, albiste lazgarriak iristen ari dira. Marokok ez du Aaiunen egiten ari denaren testigurik nahi.

Elkarrizketa: Xabier Otegi, Rachid Salem Abd Rahman eta Salah Amaidan

16-18 orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Antton Izagirre	4-5
🌀	Normalizazioa: Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz Tolosan	6-7
🌀	Eskualdeko albisteak: Helena Orcoyen	12-13
🌀	Eskualdeko albisteak: Mikel eta Maite Gurrutxaga	14-15
🌀	Zintzilik: Txapela buruan, eta ibili sarean!	19
🌀	Kultura: Miren Artetxe bertsolaria	20-21
🌀	Kirol saltsa: Carlos Peña, mundua igerian	22-23

Elduko berriak



Txomin Garmendia
Bertsolaria

Eldura pozik joan nintzan, nola ez? Eskolan ere antxe ibillia naiz-eta. Poz guztien artean tristura ere izan nun ordea, auzo orretan: elizaren ondoan dagon Bikarioetxea, gu eskolan ibilli giñana, auzoko taberna eta denda zana, utsik eta abandonatuta bai dago. Erri askotan, eliza konpondu baiño lenago, Erretoreetxea-

kin artu bear ziran erabakiak artu zituzten; orrela ikusiko ditugu Erretoreetxe ziran etxe asko jatetxe, alkarte, etxe bizitza eta abar biurtuta. Eldu horretan batekoz bestera jokatu dute, eliza berritzea oso ondo dago eta zorionak; Bikarioetxe ori orrela ikusita ez ote da iñor mugituko? Denborak esango digu.

O Elduko jai orretara joan nintzan atsegiñez, garai bateko adiskideak ikusiz eta itzegiñez. Eskolan ere or asi nintzan ikasi orduko oiñez, alde ortatik zorretan nago aitortu bearko ziñez, orduko eskola erderaz gendun naiz ulertutzen jakiñ ez, "Zer esan nai du edo zer da au?" buruari eragiñez, Josepa maistran zigorrak ziran utsegitean ordaiñez, zorionean gure izkuntza ibiltzen gendun dotriñez, elizan berriz sermoia beste ekintza danak latiñez, gaurko gazteak garai aiek daude sinistu eziñez, Elduko eliza bosteun urtera iristen omen da adiñez, Jasokundeko Ama daukala bere erretablo apaiñez, orain berritu dute ederki fedearen eragiñez, ondoan duan Bikarioetxeak jarri ninduen samiñez, etorkizun bat merezi luke egitekoak egiñez. ☺

Memoria gabeak

Suposa zitekeen 36ko gerran, askatasunaren alde hildakoen oroimena omentzerakoan, antolakuntzan ere, garai hartan errepublikanoen bandoan elkarrekin aritu ziren taldeetako ordezkariak parte hartu beharko zuketela: alderdi jeltzalekoek, sozialistek, komunistek...eta ANVkoek ere. Gaur egun azken sentsibilitate hori ordezkatzan dutenak baztertuak izan dira eta paradoxa handiegia litzateke memoria errekuperatu nahi dela diotenean halako ahaztura ezjakintasun handia egon daiteke baina interes politikoak eta asmo txarrak nagusitu direlakoan nago.

Haratago joanda, uste dut memoriaren zati bat besterik ez dela errekuperatu nahi. Gaur egun politikoki zuzena dena eta orduan gertatutakoaren argira lurralde estaltzen duena azaleratu baino lurra lurraren gainean bota eta betirako estali nahi denaren susmoa dut. Nola ulertu bestela Tolosako Udalaren jarrera baztertzaila.

Aldi berean, Tolosako Udalaren ekimenetik haratago 36ko gertakari lazgarriari interpretazio sakonagoak eta gaurkotuagoak egiteko ekimenak sortu dira. Horien artean Ahaztuak Elkarteak antolatutako hitzaldiak, mahai inguruak eta omenaldiak. Ba, hara nondik, Tolosako Udalak ukatu egin dizkio lokal publikoak erabiltzeko aukerak eta bere ekimenak elkarrekin pribatuetan

bideratzera behartua izan da. Argigarria eta esanguratsua Ahaztuak elkarrekin egiten ari den ekimena udalak, betoa jarri, baztertu eta isilarazi nahi izana. Errazago ulertuko dugu orain Tolosako udalaren jarra totalitaristaz, alderdikieriaz, bazterkeriaz eta alde bakarreko interpretazioaz geniona.

Memoriak, biktima guztiekiko begirunea eta errekonozimendua eskatzen du baina elkarrekin aurka aritu zirenak elkarrekin ez nahastea, beregan duen biktima izaera bakoitzari aitortzea eta gatazkaren izaera politikoaren aitortzatik abiatuta lehen mailako eta bigarren mailako biktima ez sortzea. Mina eta sufrimendua denena izan zen; eta ez, kolore ideologikoaren arabera soilik irabazleena.

Dena den ezin dugu historia interpretatu neutraltasun eta ideologia ororen ukapenetik. Ezin dugu ahaztu zer garen eta nondik gatozen, zer zordiegun gure aurrekoei. Historiak eta memoria mugatuak urtetan sortu duen ahaztura astindu behar dugu eta merezi duten bezala oroitu eta goratu behar ditugun Euskal Herriaren askatasunaren alde Tolosan ere fusilatutako eta erailak izan ziren haiek. Horregatik azaroaren 27an Tolosako hilerrian egingo zaien oroitzapen eta herritar omenaldian parte hartu behar dugu.

Izan ere, egin diren hitzaldi horietako batean tolosar baktek alkateari ongi gogorarazi zion bezala, hemen lehenago



Antton Izagirre
Irakaslea

Azaroaren 10a Memoriaren Eguna ospatzeko datatzat hartu zutenetik egun horren karietara antolatutako ekimenak ugaritu dira. Adibide gisa, Tolosako Udalak antolatu dituen hitzaldiak eta erakusketak. Izatez, ekimen parte hartzailea eta interesgarria izan zitekeena, kutsu elektoral eta diskriminatzailea hartu du antolaketa une beretik. Mota honetako ekimenak patrimonializatzen dute instituzioek eta kasu honetan bezala, Tolosako Udalak, "neurea hala ezerez", eginiko planteamenduak herren utzi du ekimena eta izan zezakeen birtualtasuna mugatu dio ekimenari.

jaso du omenaldia M. Manzan bezalako polizia torturaztaileak, gerra garaian Euskal Herria defendatzeko eta faxismoa menperatzeko borrokatu zutenek baino. ☺

Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz Tolosan

'Lehen hitzetik zerbitzua euskaraz' eragite-ekintza jarri da abian Tolosan. Eragite-ekintza honen bitartez, egunero ko harreman komertzialetan, langileen eta bezeroen artean euskaraz hitz egin ahal izatea eta euskaraz hitz egitea eragin nahi da.

1HZE

"Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz" egitasmoaren sustatzaileak.

Lanketa honetan eragile ezberdinak hartu dute parte, tartean, Tolosako Udala (Euskara zerbitzua), Galtzaundi Euskara Taldea, Kontseilua, Tolosako Ikastetxeak (Laskorain Ikastola, Orixe B.H.I., Hirukide Ikastetxea) Aitzol Euskaltegia eta Tolosako dendarien elkarte Tolosa&Co.

Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz egitasmoak urrats ezberdinak eman ditu kanpaina abiatu aurretik:

Ezagutzaren neurketa inkesten bitartez

Tolosa&Co dendariei euskararen ezagutza neurtzeko in-

kesta banatu zitzaion. Inkesta horrekin batera, euskara ikasteko Tolosan ditugun aukeren eta laguntzen berri eman zitzaion. Jasotako erantzunen artean, gehiengo batek behintzat, zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukerak badituela adierazi zuen. Bestalde, langile batzuk euskara ikasteko interesa ere azaldu dute, hori dela eta euskaltegiak ikastaro bereziak antolatu eta eskaini ditu.

Erabileraren behaketa

Dirudienez neurri handi batean behintzat, Tolosako dendetan euskaraz erosteko eta saltzeko aukerarik badugu, baina zein da egunero hizkuntzarekiko dugun jarrera? Bai dendariak eta bezeroak euska-

ra jakinda, erabiltzen al dugu? Erosketak egiterakoan zer-nolako joerak ditugu?

Galdera horiei erantzuteko, ikastetxe ezberdinetako ikasle taldeak osatu, eta kalera joan dira, dendaz denda gure jarrera horiek behatu eta aztertu ahal izateko. Laskorain ikastola, Orixe B.H.I eta Hirukide ikastetxeko, guztira 25 ikasle aritu dira lanketa honetan.

70 denda behatu ondoren, ondorengo egoera bereziak azpimarratu dituzte ikasleek:

- "Langile batzuk euskara erabiltzen dute saltzeko eta gero beraien artean gazte-eraz aritzen dira".

- "Euskaraz agurtzen dute, hala ere, bai erosketan edota

Galtzaundik salgai jarri du Gabonetako Loteria. Nahi duen orok Galtzaundiko Egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6) eskuratu dezake.



Galtzaundi 333 eko azaroak 19

tartean ematen den elkarrizketetan gaztelera jotzeko ohitura oso zabaldua dago".

- "Erosteko prozesu guztia euskaraz egin, eta ordainketan berriz gaztelera erabiltzen da"

Hizkuntza-paisaiaren behaketa

Eta bezeroen begietara sartzen diren mezu erakargarri horiek, zein hizkuntzetan ematen dira? Hori ere aztergai izan dute, dendaz denda mezu publizitarioei arreta berezia jartzen aritu dira, argazkiak atera, konpondu behar diren egoera horien berri emanez. Sarritan euskaldunok baztertuak sentitzen gara, "merkealdi horiek" ez baitaude euskaldunei zuzenduta. Euskara berezko hizkuntza izanik arreta berezia merezi du, Tolosan behintzat

ez bigarren mailakoa, lehenengo baizik.

Hemendik aurrera, Lehen Hitzetik Zerbitzua Euskaraz kanpainari ekingo zaio. Tolosartan berriz gaztelera erabiltzen da. Aurrerantzean harreman komertzialetan langileen eta bezeroen artean euskaraz hitz egitea, lehen hitzetik hasita... euskaraz! Bezeroek euskaraz tratatuak izan nahi dutela jakinarazi beharko dute, eta dendariak berriz zerbitzua euskaraz eskaintzeko gonbitea merkatari guztien artean zabaldu.

Gonbidatuta zaudete euskararentzat garatu eta zabaldu nahi ditugun esparruotan eragitera. Zerbitzu-emaile euskaldunak aukeratu nahi ditugulako, euskaraz bizi nahi dugulako!

Kultur ekitaldiak

Azaroak 25
Ipuin kontalaria
Idoia Sanchez

Arratsaldeko 17.15ean
Hernialdeko Liburutegian

Arratsaldeko 18.15ean
Iruako Liburutegian



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPIZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462




Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

6



Tolosarren eta inguruko herritarren jakintza maila altua izanik, erabileran eragiteko beharra azpimarratu dute ekimenaren sustatzaileak.

7



Tolosako Babarruna, azokari eta baserritarrei esker ospea mantendu duen produktua

Tolosako perla beltza

8

Aurtengo uzta jasota dago, merkaturatzen hasteko prest. Berriro ere ospe handia berreskuratutako produktu honek gure koilaretara heldu bitartean hilabetetako prozesua jasan behar izan du (maiatza urria bitartekoa): lurraren prestateta, ereinaldia, jorratze eta lurreztatze lanak, euskarriak ezartzea, babarruna biltzea, lehortzea, aletzea, aukeratzea, gurgurioaren aurkako hotz-tratamenduak egitea, ontziratzea eta azkenik merkaturatzea.

Honetaz guztiaz arduratzen da Tolosako Babarruna Elkarteak. Tolosako San Esteban auzunean kokaturiko pabiloian aurrera eramaten duten lana

eta babarruna bera hobeto ezagutzeko in-tentzioarekin bertako zuzendariarekin, Xabier Goikoetxearekin, bildu da Galtzaundi.

Elkartearen historia, nondik norakoak

1994. urtean sortu ginen. Tolosako Udalak eta Tolomendik deialdi zabal bat egin zuten, Jose Inazio Telleria zinegotzi zegoela, Babarrun Kofradiaren partaide eta babarrunarekiko sentzibilitatekikoa. Deialdira 33 baserritar gerturatu ginen. Aurreneko kanpaina 1995ean egin ginen. Gure helburu nagusia orduan, Tolosako Babarruna kanpokatik bereiztea izan zen eta gaur egun ere helburu berdinarekin jarraitzen

Tolosaldeko zenbat eta zenbat etxe eta baserrietan Tolosako Babarrun ale more ilun, ia beltzak direnak, obalo itxuradunak, azal leunekoak arituko diren aukeratzeko, banatzeko? Zenbat etxetara helduko diren, urtero gisa, urte garai honetan babarrun eskararak? Eta zenbat eta zenbat koardrilatan hasiak izango diren babarrun janak antolatzen?

Naiara Roldán de Aránguiz

dugu. Momentu honetan 55 ekoizle gaude, guztion artean 27 hektarea eroin ditugu. 1995. urtean 4-5 hektarea baino ez genituen osatzen guztion artean. Gure helburua berdina izaten jarraitzen du, kanpoko babarrunetik bereiztea. Gurea defendatzea eta kalitatezko produktu bat eskaintzea da gure nahia. Kalitatezko produktu bat kontsumitzaileei bermatzea. Orduko helburuak eta gaurkoak, berdinak dira. Baliabideak ordea, guztiz ezberdinak. Orduan, Tolomendiko bulegoan mahai eta aulki bat utzi ziguten deiak egin eta jasotzeko. Gaur egun San Esteban auzoko pabiloian egiten dugu lan. Kalitate kontrol sistema nahiko arkaikoa ginen orduan. Pixkanaka beharrei erantzunez, babarrunaren eskaera handiagotu denez, mila gauza

egin ditugu tarte honetan. Josteko makina bat ekarri genuen, babarruna aletu eta garbitzeko ere. Etxe hau 2001. urtean altxa zenean 10 hektarea eroin ziren 33 lagunen artean. Oso denbora gutxian salto ederra eman genuen.

Tolosako Babarruna Non?

Askok Tolosa badela babarrunari esker ezagutuko dute. Ni ere harrিতuta gelditzen naiz Tolosako babarruna noraino zabaldua dagoen. Sortu ginen garaian Tolosako Babarrunaren definizioa Tolosaldean ereiten zen babarrunari eman zitzaion, Tolosaldeko baserritarrek ereiten zutena. Berehala konturatu ginen horrek ez zuela zentzurik, Lasarte-Lazkao-Zaldibiako baserrietako babarruna Tolosakoa izan daiteke. Nafarroa aldera joanez gero -Goizueta-Leitza-,



Errezeta

- Osagarriak 4 laguntzizat:
- Tolosako Babarruna 1/2 kilo
- Tipula txiki bat
- Oliba olioa 5 kollarakada
- Gatza
- 15 l. ur

Babarrunak eltze batean jarri ur hotzarekin, oliba-oliorrekin eta xehe-xehe txikitutako tipularekin. Eltzea su bizian jarri irakiten hasi arte, gero su motel-motel jarri eta babarrunak gutxi gorabehera ordu pare-batez makal-makal irakiten eduki. Egiten ari diren heinean, eta beharrezkoa baldin bada, ur hotza botu. Babarrunak ondo eginda daudenean, gatza botu eta su motel-motelarekin eduki minutu batzuetan. Jateko alera baino lehen, sutatik kanpo utzi saila loditzeko.

Tolosako babarruna ez dela esatea ez du zentzurik. Orduan Gipuzkoara zabaldu genuen. 1999. urtean Labela jasotzeko orduan Euskal Autonomi Erkidegoko alderdi berdera zabaldu zen, Gipuzkoa eta Bizkaira. Eguraldia, klima eta lurra antzekoak diren heinean ez dago bereizterik. Muga administratiboak beste kontu bat dira. Administratiboki nafarrekin moldatuko bagina, agian Nafarroako zati bat ere hartu genezake.

Ohiturarik nagusia hemen beltza eritekoa zen, behin bailara honetatik atera ezkeror pintoa ordea. Garbi ikusten da, bi babarrun mota, gaur egun Gernikakoa bezala ezagutzen duguna, pintoa eta bestea Tolosakoa bezala ezagutzen duguna, biak elkarrekin bizitzen egon direla. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta azkenean benetan ezaguna Tolosakoa egin da.

tatu eta ziurtatzen du. Inspekzioak izaten ditugu tarteka. Guk seguruena gure kabuz ezingo genuke egin, ekonomikoki oso garestia delako. Kalitatea Fundazioa erakunde serioa da, kontrol zorrotzak egiten dituen.

Euskal Babarrunak; Gernikako indaba, Arabako Pintoa eta Tolosakoa

1999an Labela emateko garaian, hiru babarrunen artean hiru label egotea justifikatu zitekeen gutxienezko masa ez genuen betetzen. Orduan hirurentzat label bat sortzea bururatu zitzaion Kalitatea Fundazioari. Hiruren artean itxura bat ematen genuen, identifikatutako kiloetan.

Jatorria Ameriketan

Hemen baba zegoen, beti ezagutu izan dena, ondoren indaba etorri zen, Indietatik etorritakoa, edo urruneko baba, babarruna. Nabarmena Ameriketatik ekarria izan zela.

Label etiketa

Garrantzia itzela izan zen guretzako. Jasotzerakoan nahiko eszeptikoak ginen. Berehala konturatu ginen onura asko zituela. Lehena, marketin, promozio eta ekonomia aldetik dugun laguntza eta bigarrena bertako produktua dela konfirmatu eta babestea. Kontrolek hori baieztatzeko aukera ematen digute. Trazabilitatea eriten den momentutik saltzen den momentura arte kontrolatuta dago. Baserri batek 100 kilo ekartzen baldin baditu, ezinezkoa da 120 kilo ateratzea. Kontrol sistema hori Kalitate Fundazioak egiaz-



eta besteak. Gaur egun Araban ez da babarrun gehiago egiten interesatzen ez delako edo nahi ez delako. 100 tona ere ereitera heldu izan dira.

Lehen Slow produktua

Estatu mailan Tolosako Babarruna izan zen Slow Food produktu bezala izendatu zen lehena, lehen baluarte. Italian, Ingalaterran, European ibili gara honi esker. Dagoeneko Tolosako Babarruna ez da Slow produktua, betiko ezin delako izan. Aditu Batzarraren arabera Tolosako Babarruna nahikoa zen bere bideari bakarka egin ahal izateko.

Ospea, sukaldariak vs. herritarrik

Tolosako Babarrunak beti izan du izen bat, Tolosarrei eta inguruko baserriarrei esker izan da. Ezin ukatu sukaldari edo kritikiko gastronomikoez hemendik kan-

pora joan direnean eraman izan dutela baina babarruna bertako jendeari esker ezagun egin da. Egia da, telebistan, prentsan agertzen direnak haiek direla. Gu sortu ginen garaian bertako produktua eta bertakotasuna ez zegoen modan. Jendea jatetxetara babarruna jatera ez zen joaten. Egia esan azken urte hauetan aldaketa bat egon da, bertokotasunari garrantzia eman zaio, bertokoa baloratzen da. Baina Tolosako Babarruna ezaguna egin da bertako jendeari esker.

Babarrun astea

Promozio eguna oso garrantzitsua izaten da. Babarrun eguna onura asko ekartzen dizkio herriari eta guri produktore moduan ere. Azokari, garai batean izena eman zionari, onura dakarkio eta baita elkarte eta herriari ere.

Bezeroak

2000. urtean beste ekoizle batzuekin batera, (gazta, ez-tia...) Lur Lan merkaturatzeko enpresa sortu genuen. Salto handia suposatu zuen, zentro handietan sartzeko aukera izan genuen eta baita atzerrian ere. Oso ezberdina da toki batean babarruna bakarrik edo gama oso bat eskaintzea, bezeroaren arreta oso ezberdina izaten da.

Bertako kalitatezko produktuekin gama bat osatzeak ate asko irekitzen ditu. Merkatu bide oso garrantzitsua sortu da, diru asko bideratzen duena. Bestaldetik, zuzenean ere merkaturatzen dugugu: harakinei, *delicatessen* dendei, betiko dendei eta baita jatetxeei ere.

Elkartetik kanpoko ekoizleak
Askok, euren kompetentzia

bezala ikusten gaituzte. Justo kontrakoa da. Garbi daukagu, behin ere ez garelako produktore guztiak elkarrekin egongo, hori ezinezkoa da, hori ez da gertatzen inongo jatorrizko izendapenetan, ez labeletan. Nahiko nuke askoz gehiago izatea. Azkenean, 1994an kezkatuta juntatu ginen oso gutxi ginelako, indar gutxiokoak, produktua gutxi baloratua ze-

goelako, merkatua galtzen ari zelako. Gutxi egonez gero indarrak galdu egiten dira.

Aurtengo uzta
laz lehen errekorra bete genuen, 25 hektarea erain genituen eta 27.000 kilo jaso, haie-tariko 24.000 label izendatu zituzten. Aurtun 30.000tik gora lortzea espero dut.

Tolosako Babarrunaren Astea

Tolosak aurtun ere bertako gastronomiaren izarra den produktua kalitatea goraiatzeko asmoz babarrunaren aldeko apustua egingo du Tolosako Babarrunaren Astea antolatuz, Babarrun Kofradia, Tolosako Babarruna Elkarte, Tolosako Tabernak, Gure-Kaiola Elkartearen eta Tolosako Udalaren elkarlanaz.

keta, Babarrun irabazlearen lankariaren enkantea eta Tolosako Alde Zaharreko tabernetan, Ez-peleta Elkarrekin antolatuta Babarrun Jatea, 500 lagunentzat.

Azaroak 21, igandea. Triangulo Plazan. Tolosako Babarrunaren XXIV. Lehiaketa Gastronomiaren eta Tolosako Udalaren elkarlanaz.

Sariak: Prestaketari dago-kionez: 1. 400 euro, trofeoa eta txapela; 2. 200 euro eta trofeoa, 3. 100 euro eta trofeoa. Eta itxurari dagokionez: 1. 200 euro eta trofeoa.

Zerkausian. Herri Bazkaria. Menua: Sarrera moduan, Casa Altunaren Baserriko oilaskoaren gelatina trufarekin, pate sorta eta untxi-tarrina

onddoekin eta Casa Maisor-en Getariko antxo. Ondoren Tolosako Babarrunak, aza, odolki, udaia eta txorizoarekin eta Txumitxako piperrak. Postrerako Casa Ezeiza. Fernandez de Pirola upeltegietako ardo beltza ondua, Orbelaiz upeltegietako ardo gorria, Tolosako Eguzkitza sagardoa, kafea, kopa eta purua.

Azaroak 22, astelehena. Londres Hotela, Donostia. Babarrunaren Eguna. Tolosako Babarrunaren Kofradiak eta Londres Hotela antolatuta.

Menua: mondeju pintxo, Tolosako babarruna, Beasaingo odolki, Idiazabalgo gazta, xaxu, tejak eta zigarrorxoak.





Helena Orcoyen: "Ikasketa Bekak atzerrian kurtsoren bat egiteko aukera emango dit"

Helena Orcoyen ibartar gaztea Bilboko 13. Nazioarteko Kantu Lehiaketako garailetako bat izan da inolako zalantzarik gabe. 5 sari bereziren jaun eta jabe bihurtuta, etxera lana oso ondo egindako sentsazioarekin itzuli da. Berarentzat sari nagusia, hizpiderik gabe, Ikasketa Bekarena izan da, Bilboko Udalak sustaturiko 7.200 euroko saria, alegia.

Naiara Roldán de Aránguiz



152 parte hartzaile guztira, 30 herrialde ordezkatzan. Finalurrekoetan sartzeko aukera izan zuen Helenak; Ameriketako Estatu Batuak, Grezia, Taiwan, Errusia, Espainia, Japon, Alemania, Hego Korea, Italia, Portugal, Georgia, Panama edo Polonia jaioterri zuten beste 31 ordezkariarekin batera. Finalurrekoa gailendu eta finalean, Bilboko Arriaga An-

tzokian bere burua ikusi zuen hamar abeslarietako bat izan zen.

Belliniren *Ah! Non credea mirarti* (La Sonnambula) aria izan zen Helenak taularatutako lana iragan azaroaren 6an. Ezin ukatu entzuleen zein epaimahaiaren gustukoa izan zela. Izan ere, 5 sari berezi eskuratu zituen: Ikusle Sari Berezia, Ikasketa Beka, Bizkaiko Antzoki Sarean Kontzertuak eskaintzeko kontratua, Huelvako Caja Rural del Sur Saria eta Samho Art Center-Hego Korea Kontzertuak Saria.

Bi urtez behin ospatzen den lehiaketa honek aurtengo edizioan krisiaren eragina ere jasan du, Bilboko Nazioarteko Kantu Lehiaketako antolakuntzak zehaztutakoaren arabera ospakizunaren sistema aldatzea erabaki du, talentu liriko berriak aurkitzen jarraitzeko eta horrenbeste diru ez gastatzeko helburuare-

kin. Aurten, beraz, kanporaketa saioak, jasotako DVD selekzio bategatik ordezkatu dira eta aukeratutako lehiakideak baino ez dira Bilbon izan. Helenak RTVEko grabaketa bat aurkeztu zuen, duela gutxi egindakoa eta berak esandakoaren arabera "oso grabaketa ona" zena.

Egizu Bilboko 13. Nazioarteko Kantu Lehiaketan egindako lanaren balorazioa?

Maila altuko lehiaketa izan da. Finalera 5 gizon eta 5 emakume heldu ginen. Hauen artean ahots estruktura ezberdinak zeuden (mezoak, sopranoak, soprano-lirikoak, soprano-arinak...). Egia esan, aukeraketa oso ondo orekatua zegoen eta oso zaila izan da. Oso nibel altua egon da, baita gizonen kasuan ere, egia esan emakumezkoen artean beti oso maila altua egoten da baina orainoan ere gizonezkoen horrela gertatu da.

5 sari berezi eskuratu dituzu. Pozik egindako lanarekin?

7.200 euroko beka hasieran banatutakoa izan zen eta hura zen irabazi nahi nuena. Sari hau jaso izan ez banu ezingo nuke 7.000 bat euro atzerrian kurtsoren bat egiten gastatu eta orain aukera hori izango dut. Pausu bat da; atzerrian egon, pertsona

oso garrantzitsuekin lan egin eta azken finean pausu hori emateko aukera izatea. Finalera heldu arte, orkestrarekin abesteko aukera izan arte, eta zure kideen kontra lehiatu behar zarela ikusi arte oso zaila ikusten duzu eta zalantzan jartzen duzu saria eskuratu ahal izatea. Sari hau bezaraz, garrantzitsuena izan da.

Ikuslearen Saria eskuratuta ere oso pozik nago, 1.200 euro, ikusleagoak entzundakoaren balorazioa egin eta niri eman zidan botoa, niretzako hau benetako harrotasuna da.

Bestaldetik, Hego Korearekin jasotako kontratua dago, honek kanpora ateratzeko aukera ematen dit eta benetan izugarria da. Honetaz gain, Huelvan kontzertu bat ere eskuratu nuen, oso positiboa da.

Bizkaiko Antzokietan kontzertuen saria ere primeran dator, honela lanean, ikasten eta prestatzen jarraitzeko aukera daukat. Kontzertuak egiteko aukera izateaz gain, kontzertuak ordaindu egiten dizkirate. Honek aukera ematen dit nahi dudana horren-gatik lanean jarraitzeko, ondo abesteagatik lanean jarraitzeko, alegia.

Kontzertu hauek gainera aukera emango dizute kontaktuak egin eta mundu honetan gehiago murgiltzeko, ezta?

Hori da. Egia esan, askotan ilusioz hartu dezakezu Koreara joatearena baina baliteke kontaktu aldetik bertan ez lortzea eta Huelvan bai. Baliteke bertan ordezkari, antzoki-gizon-emakume, kritikari bat egotea. Ez dago jakiterik harremanak non sortuko diren. Hau guztia oso garrantzitsua izan da. Bekarena lehen saria eskuratzea bezalakoa izan da. Lehen saria eskuratu izan banu, dirua kontu

berdinerako erabiliko nuke, formaziorako.

Pentsatu al duzu zer eta non ikasi nahi duzun, zertan inbertituko duzun diru hori?

Ordu batzuk daramazkit bueruari bueltak ematen. Ez dakit opera estudio bat egingo dudana edo pertsona zehatz batekin hilabete batez ikastera joango naiz; orain arte diru-aldeetik egiteko aukerarik izan ez dudana egingo dut behintzat. Aztertzen nago. Egia esan gauzak ondo pentsatu eta ondo egin nahi ditut. Sari hau eskuratu nahi nuen eta behin eskuratuta lasaitu beharra daukat, gauzak ondo pentsatu eta denbora bat hartu behar dut. Dudan planteamendua behintzat iraila partean kurtsoren bat egitea da, orduan benetako eskaintza egoten baita. Baina egia esan, hau ere aldagarria izan daiteke.

Aurreko edizioan aurkeztu eta final aurrekoetan ez zinen sartu. Zer da denbora honetan aldatu dena, zergatik eman duzu horren pausu garrantzitsua?

Lehiaketekin inoiz ez dago jakiterik. Aurrekoan oso ondo prestatuak joan nintzen, aria izugarria abestu eta ez ninduten aukeratu; orduan niri gertatu zitzaidan moduan, oraingoan seguruen oso ondo abestu duten pertsonak egongo direla probak pasa gabe. Aitortu beharra daukat ere adinak nire kontra egiten duela. Jende zaharragoa aukeratzen dute. Opera baterako, normala den moduan, eskarmen-

tua duen pertsona aukeratzen dute. Adibidez, Katia Metlova, lehen postua eskuratu duenak, adin bateko emakumea da, 35 urte ditu, nik 23 ordea. Zenbat urte geratzen zaizkidan niri oraindik! Ez zait axola! Hori niri gertatu zitzaidan moduan jende askori gertatu izan zaio, abeslari handiei. Ana María Sánchez-ek, nire irakasleak, soprano handiak, tenore handienekin abestutakoa da eta ondorengo esan dit: "behintzat nik baino zerbait gehiago egin duzu". Berak ez zituen kanporaketak pasa. Niri aurrekoan berdina gertatu zitzaidan baina tematu egin naiz, berriro ere saiatu naiz, beka hori lortzeko ilusioa nuen eta azkenean lortu egin dut.

Euskal ordezkari bakarra izan zara.

Finalurrekoetako zerrenda ikusi eta espainiar estatuko soprano bakarra nintzela konturatzerakoan zera pentsatu nuen: Ama! Horrenbeste abeslari, jende oso ona aurkeztu eta ni bertan nago! Oso pozik nago egindako lanarekin. ☺



Beti Nahi
gaiterria

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

"Album ilustratuek gai unibertsal asko planteatzen dituzte"

Mikel eta Maite Gurrutxaga amezketarrek elkarrekin egin duten lehen lanak saria eman die, album ilustratuen IV. Etxepare Saria hain zuzen ere. *Alex, nire laguna* izenburu duen liburuak Ixabel eta Alex ditu protagonista, neskatila bat eta haren lagun berezia, Ixabelek bakarrik ikusten duena. Joan den azaroaren 8an aurkeztu zuten Amezketako kultur etxe berrian, aretoa jendez lepo zegoela.

Amaia Goikoetxea

Aspalditik zuen Maitek bere anaia Mikelekin elkarlanean zerbait egiteko gogoia, azken honek beti izan baitu idazketarako zaletasuna. "Nik irudi bat eman eta berak horren gainean

testu bat sorrezala, horixe planteatu nion eta gero, gustatuz gero, norabait aurkez genezakeela", azaldu zuen ilustratzaile amezketarrek. Horrelaxe jarri zen abian Pamiela argitaletxeak argitaratu duen *Alex, nire laguna* album ilustratua.

Maitek anaiari eman zion lehen irudi edo bozeto hartan neskatila bat eta munstro bat ageri ziren eta horren gainean sortu zuen Mikelek istorioa. "Iru-di hark aukera asko eskaintzen zituen; nik hari bat aurkitu nion eta hari horri tiraka osatu nuen ipuina", azaldu zuen idazleak. Album formatuan garatuko zen zerbait egitea zen euren asmoa, irudiak eta testua uztartuko zituen zerbait sortzea, alegia.

"Lengoaia umeentzat aproposa da baina album ilustratu haue-tan gai unibertsal asko planteatzen dira", zioen Maitek.

Etxepare Saria irabazi izana sekulako poza izan dela aitortu zuten. "Ez da inoren enkarguz egiten duzun ezer, ideia osorik zurea da. Ez dago editorerik, zuk zeuk erabakitzen duzu zer sartu eta zer utzi kanpoan, eta aurkeztzen duzun hori beste idazle eta ilustratzaile batzuek baloratzen dute. Guretzat oso pozgarria izan zen horrelako erantzun bat jasotzea". Etxepare Sariak berarekin zekarren liburuaren argitalpena. "Hasieran zeuk zeurean sinesten jarraitzen duzu eta liburua argitaratu bitarteko bidea nolabaiteko 'negoziaketa' bat izaten da editorialarekin. Beraiek zenbait aldaketa proposatzen dizkizute eta beharbada, hasieran behintzat, aldaketa horiek ez zaizkizu oso egokiak iruditzen baina gero ohartzen zara proiektuaren onerako izan daitezkeela".

Lan hau sortzerakoan idazlearen eta ilustratzailearen artean egon den komunikazioa azpimarratu nahi izan zuen Maitek. "Liburu honek funtzionatu badu neurri batean bion artean komunikazio handia egon delako izan da. Gaur egun faltan botatzen da hori; ilustratzaileari istorio bati marrazkiak jartzeko eskatzen zaio eta kasu askotan ez du idazlearekin ia inolako ha-

rremanik izaten".

Bien artean sorturiko bigarren lana ere prest dutela jakinarazi zuten. "Udaberrian egin genuen. Mikelek ipuin bat ekarri zidan eta hari irudiak egin nizekion. Orain ikusi beharko dugu norabait mugitzen ote dugun... Dena den, dagoeneko ipuin berriak eskatzen ari natzaio", aitortu zuen Maitek.

Ilunpeko bidaia

Bixente Gorostidi amezketarrek gidatu zuen saioaren bigarren zatian Sara Gomez herritarrak Ilunpeko bidaia argazki erakusketa aurkeztu zuen; erakusketa hau Erabilera Anitzeko Herri Zentroan bertan dago ikusgai. Gomezek azaldu zuenez, ikastaro baterako eskatu zioten lanetik sortu zitzaion ideia. "Zu istorio baten barruan sartu eta hortik istorio hori kanporatzea zen lanaren helburua, istorio bat kanpotik kontatu beharrean barrutik azaltzea, alegia. Une hartan herritar bat kartzelaratu zen eta gai hori aukeratu nuen lana garatzeko".

Ilunpeko bidaia jarri zion izenburu lanari, bere hitzetan, ilunpean geratzen baitira kartzelara egiten diren joan-etorri horiek. "Inork ez du ezagutzen bidaia horietan bati burutik pasatzen zaiona, jasan behar duen tortura psikologikoa... Kartzelara iritsi baino lehen bidaian

zehar neronek ere kartzela bat ikusten nuen txoko guztietan", aitortu zuen.

Erakusketa bisitatzeraz joaten denak txuri-beltzean aurkituko ditu beraz osatzen duten argazkiak. "Berehala konturatu nintzen gai hau ezin nuela koloretan ikusi, horregatik erabaki nuen txuri-beltzera jotzea. Nire guraria noizbait koloretan ikusi ahal izatea da", aitortu zuen.

Herri zentro berria

Aipatu bezala, inauguratu berria den Erabilera Anitzeko Herri Zentroan ospatu zen aurkezpen ekitaldia. Herriaren erdi-erdian dagoen Juan Lopez-enea edo Aierbenea etxean kokatua dago. Proiektu osoak zehazten duenaren arabera, kultur etxe berriak hainbat zerbitzu kultural eta sozial jasoko ditu bere baitan, eta horretarako bigarren solairu bat erantsi diote. Laurehun urte baino gehiago dituen eraikin honen solairu bakoitza 300 metro karratukoa da; beraz, eraiki den solairu berria kontuan hartuta, 900 metro karratuko espazio baten aurrean geundeke.

Lanak bi fasetan banatu dira eta joan den azaroaren 7an inauguratu zen zatia lehenengo faseari dagokiona da. Fase horretan burutu dena hauxe izan da: Juan Lopez-enea edo Aierbenea etxearen erosketa, bigarren solairua eraikitzea, hormak

txukuntzea eta beheko solairuan areto nagusia, kafetegia, komunak eta igogailua atontzea. Beraz, bigarren fase baterako geratuko dira eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatuak (lehenengo solairuan) eta liburutegia, ludoteka, KZgunea eta bileretarako gelak (bigarren solairuan). Lehen faseak 2.200.000 euroko aurrekontua izan du eta bigarrenaren 400.000 euroekin, 2.600.000 euro kostako da herri zentroa.

Udalak ez du zehaztu bigarren faseko lanak noiz hasiko diren, besteak beste, hura finantziatzeko diru-laguntzak lortu beharko baitira ezertan hasi baino lehen. Alabaina, behin lehen fasea amaituta kontuak nola geratu diren ikusi eta aukerarik balego, baliteke zerbaitekin aurrera egin ahal izatea. "Aurrekontuak bigarren faseko zerbaitekin hasi ahalbidetuko balu liburutegiarekin hasiko ginatke, hura baita premia larriena duena", azaldu digute Iñurritak eta Zabalak. "Egungo liburutegiak batzuetan ludoketa funtzioa ere bertan duela dirudi, eta lasaitasuna eta isiltasuna bermatuko dituen espazio bat atontzea beharrezkotzat jotzen dugu. Horregatik, kostua handiegia ez balitz lehen fasea amaitu ondoren liburutegiarekin hasiko ginatke".



URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK
Korreo. 39
Tel.: 943 671 414
20400 TOLOSA
Gipuzkoa

IG
GORRI
Paper manipulaziorako
makina eraikuntza
Konponketa
eta mantenimenduak
Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia
Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

“Sahararron batasunetik askatasuna lortzea espero dut”

Atxilotetak, torturak, heriotzak,... Saharako Agdaim Izikeko kanpalekutik aurrena eta Aaiun hiriburutik ondoren, albiste lazgarriak iristen ari dira. Marokok ez du Aaiunen egiten ari denaren testigurik nahi. Nazioarteak ere, Marokorekin dituen hitzarmenak eta interesak medio, oso epel erantzundio sahararrek nahiz Aaiungo etxeetan ezkutaturik diren bolondresak “genozidio” hitza erabiliz defnitzen ari direnari. Sahara herriarekiko elkartasuna medio, Saharako haur ugari igaro du Tolosaldeko familia ezberdinekin uda.

Igor Mujika

Arrazoi berdinagatik, Xabier Otegi tolosarra Agdaim Izikeko kanpalekuetan egon berri da. Eta, bada duela lau urtetatik Tolosan bizi den sahararrik ere, Rachid Salem Abd Rahman. Hala-ber, Behobiaren aurreko egunak berarekin igaro ditu Salah Amaidanek. Aaiun hirikoa jaiotzez eta goi mailako korrikalaria izatez, kirola eta bere herriarekiko konpromisoa dira bere bizitzako bi aldeak. Frantziar Estatuko Agne hiriko lasterketan Marokoko taldearekin parte hartzen ari zela, helmugarako 200 metroren faltan Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko ikurra erakutsi zuen. Ondorioz, frantziar Esta-

tuan asilo politikoa eskatu behar izan zuen. Behobiako lasterketan baino bere jaiotzeleku Aaiunen zuten burua Salah Amaidanek. Izan ere, eta Aaiunen bizi den errealitatearen erakusle, elkarriketa hau egin zen egunean, elkarriketa hau egin zen egunean, berriz, bere anaia bat atxilotu zuten. Sahararrak erakusten ari diren batasunean dute hirurek itzaropena jarria.

Agdaim Izikeko kanpalekuetan zer aldarrikatzeko bildu dira sahararrak?

Salah Amaidan: sahararrak

bertan jasan behar dituzten bizibaldintzak salatzeke antolatzen kanpamendua. Izan ere, bertan ditugun aberastasunak lapurtzen ari zaigu Maroko. Sahararen askatasuna aldarrikatu dugu.

Xabier Otegi: bigarren mailako bizilagunak izatearekin amaitzea ez dute. Beren lurreen beskeen menpe daude. Etxebizitza duinak izateko eskubiderik ez dute, osasun mailan, hezkuntzan, lana,... beti marokoarrak dira lehen eta sahararrak bigarren. Urte mordo batean sahararrak altxa ezinik egon dira. Izugarrikoa da Marokoren errepresioa: desagerketak, hilketak, tortura, kartzela,... Sahararrak ezinean

ziren baina altxamendu honekin sekulako indarra erakutsi dute eta, beraiek ere, horretaz jabetu egin dira. Marokok, berriz, azken urteetako egoerarik estuena sumatu du. Horri aurre egiteko berriz bidea hartu du: errepresioa.

Rachid Salem Abd Rahman: Saharako lur okupatueta bizi diren %80, egun, marokoarra da. Eta lan guztiak,... beraiei eskaintzen dizkiete. Marokok okupatua duen Saharan sahararrentzako ez dago ezer. Guk ez dugu arazorik pertsona zibilekin, Marokoko gobernuarekin, baizik. Marokoko Gobernuak, ordea, marokoarrak sahararren aurka ekiteko erabiltzen ari da.

Sahararrak batasun handia ari dira erakusten.

Xabier Otegi: Lehen, sahararrik tribuen bitartez antolatzen ziren. 8 tribu nagusi zeuden. Buzuragi batzuek Marokorekin tratuak egiten zituzten eta, ondorioz, Marokorentzako errazagoa zen bertako egoera kudeatzea. Orain, ordea, lehenengo aldiz, Marokok okupatua duen lurraldeko tribuetako buruek bat egin dute. Hor ere aldaketa handia egon da.

Rachid Salem Abd Rahman: Lehen tribuen artean talkak biltzen zituzten. Orain, sahararrik guztiok helburu beraren alde batu gara eta, soluzioa, askatasuna lortzea espero dut.

Maroko burutzen ari den erasoak zeri erantzuten dio?

Xabier Otegi: Polisarioak bake akordioetatik atera eta gatazka lutzatzea da Marokoren helburua. Sahararrak militarik erantzutea nahi du Marokok berak bere bitarteko militar guztiak erabiliz Saharako belalunaldi oso bat suntsitzeko. Aaiungo etxebizitzetara sartzen ari dira eta, bereziki, gazteen bila joaten dira. Gazteak bahitzen dituzte. Honen guztiaren

aurrean nazioarteak ez du erantzuten eta,...

Salah Amaidan: Maroko babes-ten ari diren estatu guztiak nahiz Nazio Batuen Erakundeak dute honen guztiaren errua, bereziki, espainiar eta frantziar estatuak eta Ameriketako Estatu Batuek. Aipatu estatuak, besteak beste, interes ekonomikoak dituzte Marokorekin eta, horregatik, honen guztiaren aurrean ez dira ezer egiten ari.

Arrantzarako tratuak, fosfatao,... espainiar Estatuak negozio asko ditu Marokorekin hitzartuak Saharan.

Salah Amaidan: Hala da. Esaterako, Saharatik irten zirenean fosfatao dakarren aberastasunaren %50 bereganatzea hitzartu zuten Espainiak Marokorekin.

Xabier Otegi: Ceuta eta Melillako afera ere liskartsuago bilakatuko litzateke Espainiarrentzako Saharako auzia konponduko balitz. Negozio asko ditu Espainiak Marokorekin, Sahara tarteko. Eta, Espainiako Gobernuak sahararren aldeko hitz batzuk erabili arren, ezkutu- huan Marokorekin negozioak egiten ditu. Izan ere, Espainiak eta Marokok badute zerbait ko-



Kronologia	
1884 Mendebaldeko Sahararen kolonizazioa hasiko du Espainiak.	darrikatu eta Mauritania eta Marokorekiko gerla hasiko du.
1947 Espainiar Estatuak fosfatao aurkituko du Saharan.	1979 Mauritaniak Fronte Polisarioa onartu eta Sahara mendebaldetik atera egingo da.
1963 Nazio Batuen Erakundeak autodeterminazio erreferendum bitartez deskolonizatzeko nazioen zerrendan sartuko du Mendebaldeko Sahara.	1981 Marokoko ejerzitza Saharako lurra bi zatitan banatzen dituen 2.700 km-ko horma eraikitzen hasiko da AEB-en babesarekin.
1973 Fronte Polisarioaren sorkuntza.	1991 Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko su etena indarrean sartuko da. Hurrengo urtean autodeterminazio erreferenduma egitea zehaztuko dute.
1975 Hayako Nazioarteko Justizia Gorteak Mendebaldeko Saharan NBE-ren erresoluzioa aplikatzearen aldeko iritzia emango du.	-Marokok okupatutako Saharara milaka marokoar bidaliko ditu.
- Marokok Sahara okupatuko du Martxa Berdearekin.	1992 Marokok ez du onartuko NBE-k autodeterminazioa bozkatzeko aurkeztutako errola eta galdeketa atzeratu egingo da.
- Espainiar Estatuak Saharan okupatuak zituen lurren 2/3 Marokori eta gainontzekoa Mauritaniari emango dizkio.	1998 Berritua atzeratuko da erreferenduma.
1976 Fronte Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa al-	2001 Frantziako eta AEBko
petrolera konpainia Total eta Kerr MCGeerekin Saharako lurretan lanak egiteko hitzarmenak sinatuko ditu Marokok.	
2003 NBE-k erreferenduma egitea proposatuko du. Marokok ez du aipatu plana onartuko.	
2007 Maroko eta Fronte Polisarioaren bilkurak.	
2010eko urria Mendebaldeko Saharako Agdaim Izikeko inguruetan 20.000 saharar baino gehiagok kanpalekua osatuko dute askatasuna exijituz eta jasaten ari diren bizibaldintzak salatuz.	
2010eko azaroa Marokoko militarrek bortizki sartuko dira aipatu kanpamentuan. Sahararren aldarrikapenak eta polizia errepresioa Aaiun hirira zabalduko dira.	
- Fronte Polisarioa eta Marokoko ordezkariak AEB-en elkartuko dira. Urte amaieran berriro biltzea adostuko dute.	

muna: hitza ez betetzea, gauza bat esan eta, une berean, beste bat egiten aritzea.

Rachid Salem Abd Rahman: Espainiakoak direla jartzen duten arrain produktu batzuk Saharakoak eta Saharan diren lantegietan landutakoak dira.

Afrikako herrien aldetik, ordea, Saharak babes handia du.

Salah Amaidan: Afrikako herri handi guztiak Saharako herriarekin daude. Horren erakusle, Afrikako Batasunako –nazioz gaindiko erakundea da. Saharako auzia medio, Maroko da bertako kide ez den Afrikako estatu bakarrakidea da Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa.

Fronte Polisarioko eta Marokoko ordezkariak AEB-etan bildu dira. Urte amaieran berriro biltzea adostu dute. Zer edo zer espero al duzue aipatu bilkuretatik?

Salah Amaidan: Urte asko daramatzaguru horretan eta ez dugu ezer lortzen. Nazkatuta gaude ezer ematen ez duten bilkura horietatik. Guk ez dugu gerlarik nahi baino, beharrezkoa bada,

gerlara joango gara. Gure herriaren alde, gure azken odol tanta botatzeko prest gaude. Fronte Polisarioaren deia jasoko bage-nu, mundu osoan gauden sahararrek erantzun egingo genuke.

Xabier Otegi: Europako begietatik eta handik gauzak ezberdin ikusten dira. Saharan hitzak bere balioa du. Han hitzekoak dira, esandakoa bete egiten dute. Horregatik, Ameriketako Estatu Batuetan eta Marokorekin hitz eginez ezer lortuko denaren esperantzarik ez izatea normala da. Fronte Polisarioak aukera hori izate hutsa, ordea, nire iriziz ona da.

Saharako lurretara Marokok milaka eta milaka marokoar bidali ditu, besteak beste, bertako errolda aldatu eta autodeterminazio galdeketa posible batean eragiteko helburuarekin. Urte askotan, halaber, hori izan da erreferenduma ez egiteko Marokok erabili duen aitzakia, Nazio Batuen Erakundeak aurkeztutako errolda ez du onartu, alegia.

Xabier Otegi: Nire ustez, erreferendumean bertakoek hartu

beharko lukete parte. Besteak, Marokoko gobernuak bultzatuta joan dira bertara. Han sekulakoa da batzuen eta besteen arteko muga. Sahararra edo kolonoa, marokoarra, okupatzailea zara. Hezkuntzan,... saharar umeak marokoar sentiarazten saiatzen dira. Etxera joandakoan, ordea, anai-arrebak ihes eginda,... dituztela jabetzen dira ume horiek. Familiak oso batuta daude, eta, batasun horrek beraien izaera mantentzea ahalbideratzen du.

Rachid Salem Abd Rahman: Saharan sei urte baino gehiago daramatzaten marokoarrek erreferendumean bozkatu ahal izatea onartu du Saharako lehendakariak. Aukera hori ere onartu dugu, eman diegu, baina Marokok hori ere ez du nahi.

Sahara bitan banatzeko Marokok 80. hamarkadan eraikitako 2.700 kilometroko hormak eta bere inguruetan jarritako pertsonen aurkako milaka minek nola eragiten dute eguneroko bizitzan?

Salah Amaidan: Milaka eta milaka militar daude horma

hori tankeekin,... zaintzen. Ezin da alde batetik bestera pasa. Eta, horrek, egoera oso gogorak eragiten ditu, familia guztiak dutelako nor edo nor hormaren alde batean edo bestean. Pertsona asko hil eta zauritu dira bertan lurperatuak dauden minak lehertu ostean.

Egun Saharako herria jasaten ari den egoera larri honen aurrian, zertan lagundu daiteke?

Rachid Salem Abd Rahman: Euskal Herriak asko lagundu du Sahara. Orain mundu guztiari hara behatzaileak bidaltzeko eskatzen diogu. Marokok ez du inor hara sartzen uzten, munduari han gertatzen ari dena ezkutatu nahi diolako.

Xabier Otegi: Rachidek esan modura, Sahararen alde orain egin daitekeen gauzarik hobere-na informatzea da eta, horretarako biderik onena, bertara joatea da. Zaila da bertara iristea, baina horretarako dago irudimena, eta, nahi bada, lortu ahal da. Beti da posible. Beti daude zeharkako bideak, bertakoek erabiltzen dituztenak,...

Zintzilik



Txarli Gesteira
Internet erabiltzailea

Azken bolada honetan, euskarak sarean duen presentziaren inguruan asko hitz egiten da, berrikuntza asko izan dira eta. Duela bi aste, Berria aldizkariak, aldaketa batzuk aurkeztu zituen. Bai paperean eta baita interneten, aldaketa eta berrikuntza horien artean, aipatu beharreko bat **Berriketan** (<http://berriketan.info>) sare soziala da. Euskarazko sare soziala, informazioaren eta albisteen topagune eta eztabaidagunea da. Irekia da, Berria eta Hitzako kazetariez gain, edozeinek parte har dezake, beraz, izena eman besterik ez dugu. Erabiltzaileak osatzen ditu sare honen edukiak.

Txapela buruan, eta ibili sarean!

Beste berrikuntza bat **Umap.eu** da, Codesyntax enpresa eibartarrak garatutakoa. Kasu honetan, Twitter (<http://twitter.com/>) sare sozialeko euskarazko mezuak jaso eta batu egiten ditu webgune batean (<http://eu.umap.eu>). Hau da, Umap, Twitterreko euskarazko jardunaren batzailea izango litzateke (katalanezko bertsioa, katalanez dauden mezuak biltzen dituena, ere jada martxan dago). Etorkizunean hizkuntza gehiagotara zabaltzeko asmoa dutela iragarri dute.

Aipamenekin segituz, ezin ahaztu Maite Goñik sortutako **"Gaurko Hitza"**, (<http://www.euskaljakintza.com/gaurkohitza/>), hil honetan 2 urte bete ditu. 2 urtez, egunero-egunero, inoiz kalerik egin gabe, hitz bat aurkeztu eta bere esanahia zein den azaldu digu Maitek. Bigarren urtebetetze hau ospatzeko, Maitek berak proposatuta,

hainbat lagunek hitz bat aukeratu, eta bere esanahiarekin bideo bat grabatu eta Youtube-ra (<http://www.youtube.com/user/gaurkohitza>) igo dute, 50 bideo baino gehiago daude da goeneko.

Urtemugak aipatu ditugunez, **irratia.com** (<http://www.irratia.com>) ere aipatu behar,



irratia.com) ere aipatu behar, izan ere azaroaren lehenean, 10 urte bete dira Patxi Gaztelumendi eta Jabi Zabalak lehengo saioa egin zutenetik. Internet bidez zuzenean eta euskaraz emititzen zuen lehengo irratia

izan zen, muga geografikoak gainditu eta mundu osoan entzun ahal den euskarazko irratia. Irrati ireki eta parte hartzaileak gainera.

Askoz ekimen eta proiektu gehiago daude euskaraz, baino ezin ba denak hemen sartu... (jarraituko du honek).

Euskara, sarea, teknologia berriak, komunikazioa, horiek denak eta gehiago hizpide izango ditugu gaur, azaroak 19, Txintxarrisferako (<http://txintxarrisfera.com>) kideak. Izan ere, gu ere ospakizunetan gaude. **Txintxarrisferako** 4, ardiki jatea ospatuko dugu Ugarten, urtero legez. Alegi eta inguruko herrietako blogari eta "sare"-zaleak bertan elkartzeko gara. Sarean euskaraz, lokalki pentsatuz eta globalki nola eragin eztabaidatuz.

Sarea ere euskaraz josi daiteke.

berriketan.info/txarli



Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Gizateriaren kontrako krimena

Kartzela ez bada, bahiketa, urtean desagertuta egotera, inork ez dakien zulo ezkutu batean. Tortura ez bada, mehatxuak, irainak, miaketak, kontrolak. Bortxaketa ez bada, umilazioa, senararen begien aurrean soldaduen ekintza lizunak jasateraino, erabat biluzik. Jazarpeneraren adierazle guztiak ezagutu dituzte, eta, hala ere, berezko duten izaera baketsuari eutsi diote beste behin protesta egiteko; bazterketa salatze, etxerik eta lanik ez dutela esateko, miserian bizi direla azaltzeko, euren eskubideak urratuta daudela helarazteko, adierazpen askatasuna barne, natur baliabideak kolonoen eskuetan daudela adierazteko, jaioterrian preso dau-

delak aldarrikatzeko, sarraskiak ez duela etenik oihukatze, eta bonbardaketetatik ihes egin izan ez zutenen egoera errefuxiatu behar izan zutenean baino samurragoa ez dela jakinarazteko. Agdaim izik, duintasuna eta adorea ezaugarri dituen herri baten enegarren ekintza izan da.

Egoera lazgarri honen aurrean, isiltasuna. Nazioartearen ahanztura. Estatuaren hipokresia. Mendebaldeko Sahararako erreferendume-rako Nazio Batuen Erakundearen (NBE) misioa da MINURSO. NBEaren segurtasun kontseiluan frantziar Estatuaren beto eskubidearen eraginez, mundu zabalean giza eskubideen gaineko eskuduntzarik

ez duen NBEaren misio bakarra da. Nazioarteak Marokoko monarkia-ri luzatutako inpunitate honetaz baliatuz, haurrak, emakumeak eta adineko jendea nagusi zen kanpamendua basakeriaz suntsitu dute. Gerraren bidea sustatu nahi izan dute zibilen kontrako masakre bat eraginez. Mendebaldeko Saharako gatazkan 17 urtez luzatu den su etena irudikatu daitekeen erarik ankerrenean hautsi du Marokoko monarkiak. Sabra eta Shatilako sarraskiak gogorazten duen gerra krimen laidoztagarria. Hamarnaka hildako eta milaka zauritu eta atxilotuz, gizateriaren aurkako krimenak.

Bitartean, nazioarte eta be-

reziki Europar Batasuna (EB), ezkusiarena egiten jarraitzen dute. Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen harpilatze sistematikoari eusten diote. Mendebaldeko Sahararako urak bere baitan hartzen dituen Maroko-EB arrantza akordioa kasu, zeinaren bidez EBak ehunka milioi euro ordaintzen baitizkio Marokoko monarkia-ri subirautezirik ez duen ur batzuetan arrantza-tzeagatik. Zalantzarik gabe, errurik gabe akatutako gizakien odolez ziprztindutako arrantzaldiak EBko arrantzontziak egiten dituztenak.

Maroko Saharatik at, autode-terminazioa eta independentzia mendebaldeko Sahararentzat

Miren Artetxe: "Amets Arzallusen kontra aritzen dena ez doa oso bide onetik"

Miren Artetxe, Hendaiako bertsolaria baina Urkizun bizi da. Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nabarreko Bertsulari Xapelketako finalean parte hartu eta zazpigarren postua eskuratu zuen iragan azaroaren 13an Donibane Lohizunen jokatutakoan. Txapelketan egindako lanaz mintzatu gara berarekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

Zein izango litzateke finaleko zure balorazioa?

Oso giro goxoko eta bereko finala izan zen, jende asko gerturatzeaz aparte, dena ematera joan zen publikoa, oso esker oneko jendea ikusi nuen. Bertso maila bastante altua izan zen eta txapelketa hiru lurraldetako erakusleho polita izan zen, bai kanpora begira eta baita barrura begira ere.

Egindako lanarekin gustura?

Egia esan, gustura ez. Inori ez zaio gustatzen 8tik 7.

postua eskuratzea, sailkapenari begira nahiago nuen goragoko postu bat. Errealistak izanda, oso seinale ona da, beste batzuk oso ondo aritu direlako bertsoan, oso pozgarria iruditzen zait Joanes Etxebarriak egin duena. Bestetik, nik ez nuen askoz gehiago ere espero. Izan zitekeen karranbola bat eta maila hobea ematea, baina aspaldi ez nabil bertsoan, plazatan edo bertso-eskolan ere ez eta milagroak oso tartean tokatzen dira. Espero nezakeen egun ona izanda saio borobil bat egitea eta espero nezakeen egin nuena baino okerragoa suertatzea. Konformatzen naiz.

Egin nuen saiorako neurriko sailkapena tokatu zitzaidan. Pena egun hobea tokatu ez izatea, ez nuen sentsazio onik hasieratik. Banekien horrelako zerbait izango zela.

Nola ikusi duzu zure burua txapelketa osoan zehar?

Denetik. Azkenean errodaje falta hori sumatu dut, azken hiru lau urtetan bezala. Errodaje faltak minimoak beharera egitea egin du, hanka sartzeko tarte gehixeago izatea. Pozgarria, momentu polit bat bizi izan dudalako, bereziki finalerdiko saioan.

Zer nolako prestaketa egin duzu txapelketari begira?

Horrelakoetan lotsa ematen dit egia erantzuteak baina gezurra erantzutea zentzugabekoa da. Kanporaketa baino lehen bertso-eskola bat egin nuen etxean, nire lagunarekin eta finalerdia baino lehen beste bertso-eskola bat egin nuen, hau da, sofan jarri eta elkarri bertsoak kantatzen, liburuko gaia hartuz.

Zure lanaz aritu gara baina nola ikusi zenituen gainerako bertsolariak finalean?

Ez da erreza izaten. Hor zaudenean ez zaude besteena entzuteko ere, ez zara objektiboa. Orokorrean maila polita ikusi nuen, batez ere publikoaren irrii begira. Sorpresak sorpresa, adibidez Joanes Etxebarriaren kasua, jendeak oso maila ona eman zuen. Hodei sorpresa izan zitekeen batzuentzat, baina niretzat adibidez ez zen sorpresa izan, zerbait entzun duenak, bazekien oso paper ona egin zezakeela.



Zaila al da Amets Arzallus baten aurka lehiatzea?

Lehiatzea ezinezkoa da. Amets Arzallusen kontra aritzen dena ez doa oso bide onetik. Nire ustez jenioa da. Berarekin aritzea oso erreza da. Amets kantatzen laguntza bat da, traba bat baino gehiago. Bertsolaria ona denean, lagundu besterik ez dizu egiten. Zure ondokoak ondo egiten dizu egiten.

Giroa ere lagungarria izan zen, kanporaketetan 800 pertsona, finalean 1.900 eta web gunearen bitartez 13.000 pertsonen jarraitu dute. Zeren adierazgarri dira datu hauek?

Datu onak. Batez ere jakinda 2. txapelketa zela. 1. txapelketak espektatibak sortuko zituen eta hau benetako frogaren, jendeak nola erantzungo zuen ikusteko. Masiboki jarraitze hori beti ere erlatibizatu behar dugu. Pozgarria da bi arrazoiengatik, alde batetik hegoaldeko jende bat iparraldera hurbiltzeko arrazoi bat delako eta iparraldeko bertsolaria hainbeste aldiz kuestionatua izan dena, demonstratu delako kanpora begira baina batez ere barrura begira ere, iparraldeko bertsolariak badela. Kan-

poraketetan herri txikiak bertako gazte pila bat gerturatu da, bertsozale egiten ari direnak, bidean direnak, hori pozgarria da. Niretzako pertsonalki hegoaldeko jendea etortzea baino garrantzitsua da. Bestetik erlatibizatuko nuke txapelketa handiarena, inportanteagoa da Uztaritzeko festetako bertso saioa edo Askaineko gaztetxean urteurrenean egiten den bertso saioa. Hor neurtzen delako benetako bertsolariak, gizartean nola dagoen sartuta. Txapelketa bertsolariak formato bat baino ez da. Tamalez gehienetan oihartzun gehiegi hartzen duena.

Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nabarreko Bertsulari Xapelketako finaleko emakume bakarra, 7 gizonetako bertsolari artean.

Alde batetik grafikoa da, emakume bakarra zara, erreferentzi bat zara, zuk nahi edo nahi ez. Alde horretatik positiboa da. Horrek lagunduko du hurrengo finalean ere emakume gehiago egotea, alde horretatik instituzio bezala arduratu hori hor dago. Ezin duzu ez hartu ez utzi, hor daukazu. Nik nola sentitzen dudun arduratu hori? Zuri bururatzen zaizun azken kontua da. Ni ez naiz

emakumeen ordezkari baina bai saiatzen naizela emakume naizen aldetik gaiak tratatzeko eran, ikuspegi hori landuta dugun neurrian, eramaten. Gaiak ikuspuntu honetatik tratatzea egin nahi dudun gauza da baina ez emakumea naizelako, gizonetako ere egin beharko lukete. Horretan bezala gauza gehiagotan ere saiatzen naiz: arrazismo ukiturik ez edukitzea, topiko horiek ez erabiltzea, homofobiarekin berdina...

Zer nolako erantzun botako zenioke Sustrai Colinak (Berak ere ez daki bertsoan zenbat egin dezakeen. Konturatuko baltiz zenbat dezakeen, bere burua ere harrituko luke) eta Amets Arzallusek (Egunak gorabehera, bertsoarako erraztasun handiak erakutsi ditu beti) zutaz esandakoari?

Batzuk futbolerako sekulako gaitasuna izaten dute, beste batzuk artista hutsak izaten dira eta ni bertsoan beti izan dut erraztasuna, nik dudun gaitasuna beste jende askok ere badauka. Hitz egiteko grazia handia duen jende asko dago, txikitzen bertsoan hasi izan baltiz nik baino hobeto egingo lukeena. Eskertzen dira horrelako balorazioak, animatu egiten zaituzte. Askok esaten didate gehiago landu beharko nukeela, pena izango da baino bertsoan maila bat gorago egoteko asko dedikatu behar zaio; bertso-saio asko egin, lagunekin egoteko denbora beste gauza batzuetara dedikatu... Burua horretan eduki behar da eta egia esan azken urtetan ez daukat horretan. Noizbait damutuko naizela? Ba agian bai, agian hemendik 10 urtera tope hasiko naiz bertso-eskolan. ©



Umorea afaltzeko

Zerbait berria. Sentsazioa hori izan dute Galtzaundik lurre elkartarekin elkarlanean antolatutako afari-txouan parte hartu dutenek. Lurre elkarteko bazkideek prestatutako afari ezin hobeagoari, Dani Fanoren eta Asisko Urmenetaren marrazkiek eta Bixente Gorostidi eta Iñaki Apalategiren bertsoek eman zioten jarraipena. Batzuk marraztutakoa besteak abesten lehenik, eta abestutakoa marrazten ondoren, aritu ziren. Jarraian, bertaratutakoak bilakatu ziren bertso eta marrazkietako protagonista. Barre ugari eragin zituzten eta, afari-txouan sortutako giroaren erakusle, bertsolariak goizeko 03:00ak jota zirela eta amaiera eman beharko zitzaizola esandakoan, denek zur eta lur begiratu zioten erlojuari. Mila esker bertaratutako guztioi eta, bereziki, lau artistei eta lurre elkarteko bazkideei. Mila esker.

Carlos Peña, mundua igerian

Carlos Peñak Sella ibaia igerian bi ordu eta 50 minututan zeharkatu berri du, hamargarren aldiz, Arriondaseko zubitik Ribadesellaraino. Azken hamarkadako hiru denborarik onenetarikoak eskuratu. Bere esanetan igerilaria, abenturazalea, bakearen aldeko ekintzailea da eta mezu hori zabaltzeko intentzioz munduan barrena darabil 21 urtez ibaiak, itsasoak eta lakuak zeharkatuz.

Erredakzioa

Aurreko urteko markari erreparatuz gero igerilari tolosarra kontent sentitzeko arrazoirik badu, iaz hiru ordu eta hogeita lau minututan buruturiko lana egiteko aurten 34 minutu gutxiago behar izan ditu eta.

Carlos Peñaren hitzen arabera marka hau eskuratzearen arrazoia egindako prestaketan du iturria, izan ere Astuariseko ibai ezagun honen ibilgua "oso hotza zegoen", urtero legez, baldintzak beraz aurreko urtetan aurkitutako igualak. Sellaren jaitziera urte garai honetan burutu oi du igerilari tolosarrak, ur emaririk egokiena baitago hilabete hauetan. Abuztuan ordea, piragua Sella ibaiaren jaitziera ospetsua burutzen denean Peñak dionaren arabera presa ireki behar izaten dute ur nahikoa egoteko. Esan beharra dago gainera garai honetan denboraldiari amaiera ematen diola eta bere esanetan honengatik ere aproposa izaten da forma onean egoten delako.

Lana aurrera eramateko orduan, erronkak iraun dituen 19 kilometroetan barrena, Peñak Jesus Ramirez piraguiста nafarra alboan izan du: "normalean piraguiста bat nirekin laguntze-

ko etortzen da; oso erne egon behar da, atzeraka igeri eginez egiten dudalako proba guztia".

Piraguiстak oztoporen bat antzemateko orduan Carlos abisatu eta honek erabakitzen du momentu zehatz horretan hankak burua baino lehen pasatzea, ur-lasterretan edo zurrunbiloe-tan kasu. Urte luze hauetan aritu eta gero kolpe handirik ez duela hartu aitortu du baina oraingoan "ipurdi aldean kolpe dexentekoa" hartu zuela esan du, hala ere, momentuko kontua izan eta proban aurrera jarraitu zuen.

Ribadesellan jasotzen duen tratuari erreferentzia eginez, Carlos Peñak berak dioenaren arabera ezin hobea da, aurten Juan Martino bertako udaleko zinegotziaren harrera izan du ibaitik hiribildura ateratzeko orduan.

Oraingoan Sella izan da Peñaren erronkaren eszenatoki baina 21 urte hauetan lurralde ezberdinetan ibilitakoa da: Eskoziako Ness Lakua, Hego Amerikako Titikaka, Bosniako Neretva ibaia, Jordaniako Itsaso Hila, Venezuelako Maracaibo lakua... Lurralde ugari, erronka ugari baina guzti hauen iturburua kasualitatea izan zen. Carlos atleta zen, urte

askoan korrikalari izandakoa, txapelketa ezberdinetan parte hartutakoa, eta baita Behobia-Donostia bere kategorian irabazitakoa ere. Lesio bat testigu, atletismoa alde batera utzi behar izan zuen, Iñaki Arratibel medikuaren esanetan ere jarri zen baina hilabeteak pasa eta hilabeteak pasa korrikan ezin zenez hasi bere anaiarekin batera zerbait ezberdina egitea otu zitzaion.

Aurreneko proba hortaz duela 21 urte antolatu zuten, Ebro ibaian barrena, Logroñotik Zaragozara. Honela, berak aitortzen duenaren arabera urtero 2-3 proba burutzen joan da eta bere intentzioa momentuz atsedetik ez hartzea da, bere ilusioa 25 urte igerian egitea baita.

Kostua suposatzen dion afizioa du Carlos Peñak, diru-laguntzarik ez duela jasotzen baieztatzen du, hala ere, trajeak sponsor batek ematen dizkio eta Global Nature Fund Gobernu Kanpoko Erakunde alemanarekin ere aritzen da, bere erronkei "kutsu humanitario eta ekologikoa" eskainiz. Honen trukean batzuetan bidaiak eta ostatua euren esku izaten ditu.

Buruturiko zeharkaldirik garrantzitsuen edo kuttunena aukeratzeko eskatzeko orduan zailtasunak izan ditu erantzuteko orduan. Azkenik, Ebro ibaia aipatu du, luzeragatik, 928 kilometro, Tolosa bere 24 orduz igerian burutu zuen erronka, iraupenagatik eta Itsaso Hila, arriskuagatik. Itsaso Hilari gainera ondorengo erreferentzia gaineratuz: "orain dela

gutxi enteratu naiz 100 pertsona hiltzen direla urtean bertan".

Munduan zehar ibiltzeak "jende asko ezagutzeko aukera" eman dio, herrialde eta egoera oso ezberdinak ezagutzuz: 50 gradu baino gehiagoko tenperaturetan ibiltzea, zero azpitik egoera oso hotzetan aritzea... Egoera guzti horietarako garrantzitsuenak bai gorputzaren eta baita adimenaren prestaketa eta egokitzapena direla azpimarratu du igerilari tolosarrak.

Marka guzti hauek ikusita, hurrengo erronka buruan duela ezin ukatu; oraingoan etxetik gertu izango du, Tolosan bertan, esklerosi anizkoitza dutenen aldekoa izango da. Abenduan ospatuko dela uste du baina oraingoan erronkaren datuak zehazteko ditu Carlos Peñak. ☺



ZETA
MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

kutxa



ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Matrikula zabalik

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tif. 677 340 685

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Gozotegia


Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

irakurri entzun Ikusi

Zureak egin du
Iñaki Frieria




Hiru gertakari lotzen zaizkio bat-batean kazetariari eta hortik aurrera dena korapilatzen da, tentsioak azkeneraino irauten du. Ospitalean erizain aritzen den neskalagunak tratu txarrak jasandako emakume baten kasua kontatzen dio; nagusiak tratu txarrei buruzko erreportajea egiteko eskatzen dio eta, bi aste geroago, gutun-azal bat helduko zaio erredakziora, barruan mezu kriptiko bat eta emakume bati parking batean emandako jipoi izugarria agertzen den bideoa dakartzala.

Ren Fan
Ama Say

Ama Say esan eta esan ibili zen mendearen bukaeran. Beraien abestiak eta diskoak ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira denboraren bitartez musikazale eta musikari askorentzat. Ama esan eta esan ibili zen Euskararen mundura munduko musikak geureganatzen. Esan eta esan Euskal kulturen beste kultura batzuk txertatzen. Ama gauza berriak esaten hasi ez zaigu, ba! Gauza berriak, abesti berriak, aire berriak.

Debekatuta dago oroitzea
Josu Martínez eta Txaber Larreategi



Dokumentalak Saturraranen preso egondako emakumeen testigantzak jasotzen ditu, Guda Zibilean gertaturiko basakeria. 1944an Saturraran kartzela itxi zutenetik denbora luzea igaro da baina honelako pasarteak argira ateratzeko jendeak lanean dihardu.

Azaroaren 19tik abenduaren 3ra arteko hitzordduak

Anoetako Kultur Astea

Azaroaren 15etik 21era bitartean.

Azaroak 19, 18.00, Frontoia. Pilota txapelketa. LH1 eta LH6 maila bitarteko umeentzat.

Azaroak 20. Loatza Musika Eskolako Festa. Txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak, musika tailerrak, dantza gunea, kontzertua, bazkaria, erromeria...

Azaroak 21, 10.30-12.30 eta 15.30-17.30. Xake txapelketa. Hozpel kaleko udal lokalean. LH1 eta DBH2 maila bitarteko ikasleentzat. Izena ematea: ikastolan edo xake txokoa, azaroaren 12a arte.

Azaroak 21, 11.30ean. Herri Krosa plazatik. DBH3tik aurrerako gazte eta helduentzat. Izena ematea: Itzuli tabernan azaroaren 18a arte.

Tolosako Babarrun Astea

Azaroak 20, Babarrunaren Azoka Berezia

Tolosako babarrunaren ekoizleen lehiaketa. Ezpeleta elkarteko tabernetan babarrun jatea.

Azaroak 21, Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa. Lehiaketa Triangulo Plazan eta bazkaria Zerkausian.



Pailazo ikuskizuna

Azaroak 20, 18.00etan Zerkausian. 'Tatxin eta Tatxan' ikuskizuna.

Azaroak 27, 18.00etan Zerkausian. 'Zirika Zirkus: Zorionak Zuri'

Tolosako dendariak antolatutako dinamizazio kanpaina.



Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna

Azaroak 20. Rap tailerra

Azaroak 25. Puntu lilan banaketa eta azaleratzea.

Azaroak 30 arte. Beldur barik! Arte lehiaketa.

Kontzertuak

Santa Zeziliako Kontzertua

Azaroak 21, 12.00etan. Tolosako Musika Bandak antolatuta.

Bonberenea

Azaroak 19, 22.30ean. Beti Murgan kontzertua.

Azaroak 20, arratsaldean Skate txapelketa eta erakustaldia eta 22.30ean Naiz Roxa eta Cohen kontzertuak.

Azaroak 26, 22.30ean. Gose kontzertua.



Zinema

Zeinu Hizkuntzaren I. Laburmetrai Zinemaldia

Azaroak 20, Tolosako Leidor Aretoan, goiz eta arratsaldeko sesioan, 11.00-14.00 eta 16.00-19.15 bitartean. Film labur hauek Ingalaterran, Italian eta Bartzelona, Madril, Cuenca, Toledo edo Murtzian dute jatorria. Sarrera egunean bertan Leidorreko leihatilan eskuratu ahal izango da goizeko 10.00etatik.

4. Zinema Sozialaren Emanaldia

Tolosako Leidor Aretoan, 19.00etan. Mugarik Gabek antolatuta.

Azaroak 23, 'La causa de Kripan'

Hitzaldia

Emakumea Gerra Zibilean

Azaroak 25, 19.30ean, Udaltxeko Batzar Aretoan. Lourdes Erratziren hitzaldia.



Elikadura Minbiziaren Fase Ezberdinetan

Azaroak 23, 12.00-13.30. Minbiziaren Aurkako Elkartean. Plaza mugatuak. Izena ematea: 943 457 722

Liburu azoka

Tolosako Liburu Azoka. Azaroak 19-28. San Frantzisko pasealekuan.

Titirijai 2010

Azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Ohiko eragiketarako laborategian	2010eko Azaroa	40
Biltegiko segurtasuna	2010eko Azaroa	30
Biltegiko prozedurak	2010eko Azaroa	30
Optika ikastaroa	2010/11/15	20
Psikomotrizitate	2010/11/16	20
Ordenagailua. Ingurua eta mantenua	2010/11/22	40
Beroketa instalazioen muntaia (zoru erradiatzailea)	2010/11/22	40
Geriatría	2010/11/22	50
Emakumeentzako paleta ikastaroa	2010/11/24	40
Erregulazio automatikoen elementuak	2010/12/13	20

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 19 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Asteazkena, 24 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Astelehena, 29 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Larunbata, 20 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Osteguna, 25 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Astearte, 30 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra
Igandea, 21 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Ostirala, 26 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Asteazkena, 1 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
Astelehena, 22 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Larunbata, 27 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 2 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Astearte, 23 Tolosa M ^a Isabel (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 28 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 3 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Albartzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukalea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

Horoskopoa

Azaroaren 19tik abenduaren 3ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Aro berri bati ekitera zoaz, emozioei dagokionean, behinik behin. Zure eskemak behatu eta zaharkituak ote dauden aztertu beharko duzu. Zure haur-izaera, alaitasuna eta gaztetasuna agerian geratuko dira, inoiz baino biziago sentituko zara.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Aldaketak sumatzen dira, iraunkorrak, bizitza berrantolatzea beharko dizutenak. Kontzentrazioa zure aliatua izan beharko da. Lan kontuetan argi ibili beharko zara, harreman hauskorrek baitaude.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Forman jarraituko duzu; zureak diren segurtasuna eta konfiantza berreskuratuko dituzu. Lanean aukeratzeko beta izango duzu, sortuko diren aukerak egonkor eta seguruak izango dira.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Ekintzetarako momentua, kontutan izan beharko duzu gaur egungo arazo eta ustekabeak ez dituzula gehiegi kontrolatzen. Ez utzi segurtasun faltari zure bizitzan sartzerik. Baikortasunean fokatu epealdi luze honi aurre egin ahal izateko.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Egun zalantzarriak datoz, alde batetik ezagupen berriak zeureganatuko dituzu eta jendeak zure erabakiak errespetatuko ditu baina bestalde segurtasunik gabe sentituko zara eta jakin badakizu horrek baldintzatzen zaituela.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Bakealdia dator. Lasaitasun garaia egokituko zaizu indarberritu eta hasitakoari amaiera emateko. Zure bizitzan eragozpena dena kentzen saiatuko beharko zinateke.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Egun interesgarriak. Zure ardurak eta samak gehituko dira, baina denbora luzean atzeratzen ari zena helduko da. Gauza bakoitzari bere momentua dagokio.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Erronka garaia aurrean duzu. Ondo menderatu ahal izateko horrek eragingo dizun estresa ondo kontrolatzen ikasi beharko duzu, behar izanez gero terapia baten laguntza izatea positiboa izan daiteke.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21
Garai goxo honi aurre egiteko ideia ugari izango dituzu, traba eta esfortzu gehiegirik egin gabe. Beti baikortasunez jokatu bazenu harreman pertsonalak errazagoak suertatu lirateke.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Berritasun garrantzitsurik ez baina bai zure barne mundu hori arakatzeko jarraituko duzula. Behingoagatik alor ilun horiei aurre egin beharko zenieke.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Urteari amaiera emateko kultura berriekin, bidaia luze eta ikasteko gogoekin harremana izango duzu. Honek guztiak zure bizitza profesionalean lagunduko ditu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Azkenean askatasun garai batean murgilduko zara, bizitza miatu eta egin beharreko aldaketa inolako trabarik gabe burutu ahal izango dituzu. Zuregan eragin positiboa izango duten pertsonak ezagutuko dituzu.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

KOHERTZIAL GAMA
8.000€ KO
DESKONTU ARTE

OUTLET BY
CITROËN

3.000€ DESKONTU ARTE
5.000€ DESKONTU ARTE
4.800€ DESKONTU ARTE
8.000€ DESKONTU ARTE
8.000€ DESKONTU ARTE

SALMENTAN LEHENA[®], HIRI TEKNOLOGIAN LEHENA, ETA ORAIN CITROËN OUTLET-EAN LEHENA.

CITROËN

IROVI, S.A. CONCESIONARIO OFICIAL CITROËN. POLIGONO INDUSTRIAL S/N. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

harria gresak

25 urte zure bainu-gela janzten
Neurrira egindako bainu-gelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

Jaitzen diren une beretik zainzten ditugu.

... eta hobereak bakarrik aukeratzeko.

Zuretzat eta ingurukoentzat ona zer den badakizulako

Eldu heinean, banan bana bildu...

Tolosako Babarruna
Alubia de Tolosa

Jatorria eta kalitatea bermea.

HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40 URTE eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

2,13 Km² hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

700.000 LANGILE aritu ziren hori eraikitzen

7.000 IRUDI lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetakoa tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 años
en TOLOSA

www.funerariavascongada.com 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

